

Elgoibar 1.318. zenb.
XXXI. urtea - 2024/02/23



Baserritarren ezinak





errigora

errigora.eus

Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arzoa, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

Igela eta HAPOa



"Ez dugu gustuko gure konfort eremutik aterako gaituen eraldaketarik, obrarik edota herri-lanik"

Bizirik dagoen igela egosteko ezin da animaliatxoa bota lapikoko ur bero-berotara: bertan laga orduko anfibioak salto egin eta lapikotik ospa egingo luke eta. Lehenik eta behin, lapikoa ur hotzarekin bete behar da eta igela bertan sartu. Ohituta dagoen konfort eremuan pozik ibiliko da plisti-plasta. Hurrena, sua piztu eta poliki-poliki uraren tenperatura igo. Igela ez da horretaz ohartuko, eta bere horretan jarraituko du igerian lasai asko. Nahiz eta gatz eta olio tanta batzuk ur epel horretara bota, igarri ere ez du egingo. Denboratxoa pasata, uraren tenperatura gorenera eraman behar da. Ordurako, igela erdi lo egongo da ur berotan, bainuetxetan jende nagusia egoten den bezala, minimoan duela odol presio arteriala. Hartara, ura irakiten hasten denean, igela egosita geratuko da ohartu gabe.

Antzerakoa gertatzen da hirigintzan ere. Pertsonok ohituta gaude gure herriko plaza, kale, aparkaleku eta txokoetara. Ez dugu gustuko gure konfort eremutik aterako gaituen eraldaketarik, obrarik edota herri-lanik; batez ere, gure etxe ondoan egitekoak badira. "Salto" egitea izaten da gure lehen erreakzioa; eta aldatetaren alde txarrak bakarrik datozkigu burura: eraikin berriak altuera handiegia du eta itzala besterik ez du emango, berritutako kalean aparkaleku gutxiago egongo dira, berrurbanizatutako plazatik ezin izango da autoz pasatu... Geurekoiak gara, eta ez gara konturatzen balizko kalte horiekin batera onura nabarmenak izango liratekeela gure komunitatearentzat: eraikin altuak, inguruan etxerik gabeko lurzoru gehiago egotea ahalbidetzen du; aparkaleku gutxiago egoteak mesede egiten dio oinezkoen osasunari eta mugikortasunari; plazan autorik ez egoteak bertako komertzioari irabazi ekonomikoak ekarriko lizkioke...

Horregatik, hirigunean guztiontzako onuragarri diren aldaketa polemikoak sustatu behar dituzten agenteei, euren herriko Hiri Antolamendu Plan Orokorrean (HAPOan) aldaketak bideratzea edota igela egosteko teknika erabiltzea gomendatzen diet.

BARRENez ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Bi urte espetxean

Pablo Gonzalez kazetariak gutxienez beste hiru hilabetez espetxean jarraitu beharko duela jakin dugu, pasa den astean kasuaren ardura duen Poloniako epaitegi batek fiskaltzak eskatu duenari kasu eginda. Zortzigarren aldia da Gonzalezi behin behineko espetxealdia luzatu diotena.

2022ko otsailean Poloniako zerbitzu sekretuek atxilotu zuten Pablo, Przemyslaw hirian (Ukrainako mugatik oso gertu), gerra eragiten ari zen migratzaileen krisiaren berri ematen ari zela. Zergatik? Poloniako justiziak Errusiaren espioia izatea leporatu zion, hain zuzen, "Errusiako Estatu Nagusiko Inteligentzia Zuzendaritza Nagusiko" agentea. Orditik, espetxean dago, bere burua defenditzeko aukerarik gabe. Hamar urteko espetxe zigorra eskatzen dute berarentzat.

Bi urte hauetan, bera askatzeko egindako eskaerak asko izan dira, bai Euskal Herrian eta bai nazioartean, bere aurkako frogarik ez dagoela argudiatzeko eta prozesu honetan Poloniak eskubide ugari urratu dituela salatzen (ukatu egin zioten familiarekin edo

konfiantzazko abokatu batekin harremantzeko aukera, inkomunikatuta mantendu zuten denbora luzez...).

Ez ahaztu Pablo Gonzalez euskal herritarra dela eta Europako Batasuneko kazetari bakarra Europako Batasunean bertan espetxeratuta dagoena. Jarrai dezagun lanean, bakoitzak ahal duen moduan, injustizi hau salatzen eta Pabloren askatasuna aldarrikatzen. #FreePablo!

Z.A.

Zabaldu atea BARREN astekariari, eta egin zaituz harpidedun!

Aspaldi bazabiltza **BARREN** etxeko buzoian jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera. Deitu, idatzi edo etorri bulegora.

b 943 744 112
barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturunea, 3, 3. ezk.





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Lokatza sortzen da Lekuederren:

"Euri askorik egiten ez duenean ere, Lekuederreko guneko gune hau lokaztuta egoten da. Irtenbideren bat bilatu beharko litzakete".



Mendaroko igogailu ingurua zikin-zikin dago:

"Ospitalerako igogailu inguruan jarlekuak daude, eta hor biltzen den jendeak zaborra lurrera botatzen du. Zakarrontziak jartzeko eskatu nahi nuke batetik, eta bestetik, errespetuz jokatzeko jendeari".



King-Kong zubi berria oso polita eta interesgarria iruditu zait, baina badirudi arduradunek autobus geltokia ahaztu dutela eta horma bat jarri dutela haren lekuan. Arduragabekeria, ahaztura, geltokia lekualdatzeko asmoa...? Jakin nahiko genuke autobus geltokia bertan mantenduko duten eta noiz zabalduko duten.

BARRENEK Hirigintzara jo du, eta hauxe duzue jasotako azalpena: "Autobus geltokia leku berean mantenduko da, eta obraren bigarren fasearen ostean zabaltzea aurreikusten da, hau da, 2025ko udara inguruan. Obraren epeak aukera emanez gero, lehenago zabaltzen saiatuko gara. Elgoibartarren eta, bereziki, Urazandiko bizilagunen irisgarritasuna asko hobetuko duen proiektua da hau. Jabetzen gara lan hauek sorturiko eragozpenez, eta eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei eragozpen hauen aurrean duten jarrera onagatik".



Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa jokatuko dute bihar

A bian da Euskal Herriko Mus Txapelketa, eta bihar jokatuko dute Elgoibarko kanporaketa, Tantara tabernan. 16:00etan hasiko da eta unean bertan eman beharko da izena, bikoteko 20 euro ordainduta. Irabazleek bi lagunentzako afaria eta bi ardo botila jasoko dituzte saritzat, eta bi lagunentzako afaria jasoko dute txapeldunordeek. Gipuzkoako finala martxoaren 9an jokatuko dute, Hernanin, eta final nazionala Zuberoako Altzain herrian izango da, martxoaren 23an.



Ehun bat zuhaitz landatu dituzte umeez, 'Gure natura ezagutzen' egitasmoan



Morkaikok, Atxutxiamaiak eta Baso Biziak elkarteak beste zenbait herritarrekin batera prestatu duten *Gure natura ezagutzen* egitasmoaren barruan umeentzako zuhaitz landaketa saioa egin zuten joan den zapatuan. Guztira 18 familiatako 53 lagunek hartu zuten parte. Sallobenteko aparkalekuan elkartu ziren guztiak, handik Sallobenteko lursail batera joateko. Bidean lokatz dezente topatu zuten

arren, ez zen landaketa gunera ailegatzeko oztopo izan. Baso Biziak taldeko kideek hemen bertoko basoek eta zuhaitz espezieek duten garrantziaren gaineko azalpenak eman zizkieten lehenik, eta ehun bat zuhaitz-landare banatu zizkieten gero boluntarioei: haritzak, burzuntzak, sagarrondoak, gereziendoak, arantzak, hurritzak, e.a. Bertoko produktuekin eginiko mokadurekin amaitu zuten eguneko jarduna.

Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, gaur

Elgoibarko Sarek deituta, hileko azken ostiraleko elkarretaratzea egingo dute gaur, euskal preso eta errefuxiatuen eskubideen alde. 20:00etan izango da, Kalegoen plazan.

Otsailaren 25ean hasiko du Errigorak aurtengo 'Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura' kanpaina

Bestela kontsumitzeko bidea ematen du Errigorak, elikadura burujabetzara bidean pausoak emateko aukera bat. Otsailaren 25ean hasiko du *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* urtean behingo kanpaina eta martxoaren 13a arteko tartea egongo da eskaerak egiteko. Bezeroek Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoak, arroza, pasta, lekaleak eta fruitu lehorrak eskuratu ahal izango dituzte, Errigora Balioak berme-zigiluarekin. Hau da, produktuak euskaraz etiketatuta eta bezeroak olio-erota edo kontserba-etxera joanda ordainduko lukeen prezio berean salduko ditu Errigorak, eta ekimen herritar honetan parte hartuta, hemen bertako elikagaien alde egingo du herritarrak, lagunduko du euskara indartzen eta auzolana bultzatzen, bai eta ekoizpenean bidezko harremanak sustatzen ere.

Olioia bost litroko bidoietan eskaintzen du Errigorak, kontserbak hamabi ontziko sortetan eta gainerako produktuak ere, sortetan, planteamendua urte osorako beste eskatzea delako. Produktuak Internetez eskatu beharko ditu bezeroak, *Errigora.eus* webgunean eskaera eginda, eta ordainketa txartel bidez egitea hobesten dute. 100 eurotik gorako ordainketak bi zatitan egiteko aukera eskainiko du Errigorak



(erdia martxoan eta bigarren zatia apirillean). Hala ere, ordainketa txartel bidez egin nahi ezean, dena batera eskudirutan ordaintzeko aukera ere egongo da, produktuak jasotzean.

Eskaerak otsailaren 25etik martxoaren 13ra egin beharko dira, eta eskaera egiterakoan produktuak jasotzeko puntua aukeratu beharko da. Banaketa, berriz, apirilaren azkeneko astean eta maiatzaren lehen hamabostaldian egingo dute, eta salbuespenak salbuespen, produktu guztiak aldi berean jasoko ditu bezeroak. 200 bat herritan daude banaketa-puntuak, tartean Elgoibarren eta Mendaron ere bai, eta herri bakoitzeko taldeak arduratuko dira bezeroei produktuak noiz, non eta zer ordutegitan jaso behar duten jakinarazteaz.

Sigman dauden bi palmondo botako ditu Elgoibarko Udalak, herritarren segurtasuna bermatzeko



Herriko zuhaitzak babesteko eta kudeatzeko ordenantza adostu eta martxan jarri du Elgoibarko Udalak. Ordenantza horren baitan herriko zuhaitzen inbentarioa eguneratzen eta aztertzen ari dira, pertsonentzat arriskutsuak izan daitezkeen zuhaitzak identifikatu, kendu eta ordezkatzeko, betiere "herritarren segurtasuna bermatu eta ingurunea zaintzeko" helburuarekin. Plan horren barruan Sigmako fabrikaren aurrealdean dauden bi palmondo botatzea erabaki dute, prebentziozko neurri gisa, kalteak saihesteko, eta bereziki, palmondoak bidera erori ez daitezzen. Era berean, Basarte auzoan dagoen pinu bat kentzeko asmoa dutela ere aurreratu dute.

King Kong-eko zubi berria hasi da itxura hartzen



J oan zen asteko alean argitaratu genituen King Kong zubi berria izango denaren argazkiak, eta aste honetan bestetik pauso bat eman dute. N-634 errepidea gainditzeko pasabidea jarri dute batetik, eta bestalde, zubi zaharrerako bidea egingo duen beste pasabidea ere kokatu dute bere lekuan. Bi gautan errepidea itxita egon da lanen ondorioz, baina irudietan aurkeztutakoaren itxura hartzen ari da zubia. Sei bat hilabete dira obra hasi zutela, eta ondo

bidean, lau bat hilabete barru amaituko dute lehen fasea.

Bigarren fasean Deba ibaiaren gaineko pasabidea berrituko dute. Horrez gain, errepide gaineko pasabidea kendu eta ibaiaren gaineko egitura berriarekin integratuko dute. Ondorengo etapetan, konexio-arrapala jarriko dute ezkerrean, eta igogailuaren goiko ontziratzea, bai eta Pilarreko ikastetxe zaharraren lur zatira sartzeko pasabidea ere.

Anfibioak ikusteko irteera antolatu dute martxoaren 1erako



Morkaikok, Atxutxiamaikak eta Baso Biziak taldeak Anfibioak ikusteko irteera antolatu dute *Gure natura ezagutzen* egitasmoaren barruan, Aranzadirekin elkarlanean. Martxoaren 1ean izango da irteera, eta Ander Izagirre izango da ekimenaren gidaria. IMHko aparkalekuan elkartuko dira 19:30ean autoak antolatzeko, eta ondoren Izarraitz aldera joango dira, anfibioak ikustera. Ekintza 23:00ak aldera amaituko dute. Jatekoa eta kopetako argia edo linterna eramatea gomendatu dute antolatzaileek. Irteera doakoa da, baina plazak mugatuak dira, eta izena eman behar da helbide honetan: <https://labur.eus/GNE24>.

Emakume* Feministen Asanblada sortu dute



Emakume* Feministen Asanblada sortu dute feminismoan aritzen diren emakumeen* artean, eta atekak zabalik dituzte feminismoan aritu nahi duen ororentzat. Norbanakoak, Haizea emakume taldekoak, Amatasun Feministak taldekoak, Narrutsikekoak, Lilakoak eta Ulukakoak daude taldean eta herriko emakumeak saretzeko asmoz batu dira. Hasteko, Martxoaren 8a denen artean antolatu eta ospatu nahi dute, eta parte hartzera gonbidatu dituzte emakumeak*. Afarian izena emateko azken eguna martxoaren 1a da. Kultur Kafean, Pitxintxun edo online eman daiteke izena: <https://forms.gle/DD2vRLm9zHfK18VHA> Asanbladaren hurrengo bilera martxoaren 4an egingo dute, arratsaldeko 17:30ean, Lilan. Whatsapp taldea ere badute, eta nahi duenak taldera batzeko aukera dauka, lotura honetan: <https://chat.whatsapp.com/JZ58SbqWH68LkQJ9YM8tQB>

C.D. Elgoibarrek jarriko du txosna bihar, otsaileko azken zapatuko ferian

Otsaileko azken zapatuko feria antolatu dute biharko Debemenek eta Elgoibarko Udalak. 09:00etan hasiko da, Elgoibarko baserrietako eta Artalde Artisanu Taldearen produktuen salmentarekin. 11:00etatik aurrera herriko harategietako produktuekin egindako pintxoak salduko ditu C.D. Elgoibarrek txosnan, eta Atxutxiamaikak haurrentzako tailerra antolatu du 12:00etatik 14:00etara, sasoiko produktuak ezagutzeko. Eguerditik aurrera ganadu erakusketa egongo da.

Elgoibarko dendariak Gabonetako ipuin bat osatzera gonbidatu dituzte

Elgoibarko Udalak *Gabonetako erakusleihu magikoa* ekimena jarri du martxan, eta herriko saltokiei egin die egitasmoan parte hartzeko deia. Herriko idazle batekin elkarlanean, Udalak gure herrian girotutako ipuin magiko bat sortuko du, eta lan horretan parte hartzen duten saltokietako erakusleihoean islatuko da, bere beira-arakak fantasiarazko eta xarmazko mundu bihurtuz. Ekimen honetan parte hartzeko, otsailaren 21etik 29ra bitartean eman behar da izena <https://labur.eus/erakusleihomagikoa> helbidean.

Elle Belga eta Modesto Newhouse taldeen kontzertua gaur, Mendaron



Gararock taldeak bi kontzertu lotu ditu gaur gauerako, Mendaroko Udalaren eta Ekintzak Bonberenearen laguntzarekin: Elle Belga talde asturiarra eta Modesto Newhouse talde ataundarra. San Agustin kulturgunean izango da 22:00etan, eta sarrerak 5 euro balio ditu.

Xabier Etxeberriaren proiektua da Modesto Newhouse. Iaz *Ez dut amets handirik* diskoa kaleratu zuen. Post-rock, folk espektral eta piano ukituz jasotako doinuen artean herritarren grabazioak ere tartekatzen ditu bere lanean.

Elle Belga taldea, bestalde, Fany Alvarezek eta Jose Luis Garciak osatzen dute. 2009an argitaratu zuten estreinako diskoa, eta ordutik beste lau lan argitaratu dituzte. Azkena *Lagunak* izenekoa 2022an, Bonberenearen eskutik. Intimitatetik sortzen dute eta ukitu anglosaxoia du taldearen emariak.



Iñaki Ansola Mausitxa baserrikoa bere larreetan. (Artxiboko irudia)

OINARRIZKOA DEN LANBIDETIK BIZI EZINAK KALERA ATERA DITU BASERRITARRAK

✍️ Ainara Argoitia

Haserre daude nekazariak. Euren produktuak prezio duin batean saltzea gero eta zailagoa zaiela salatu dute, ezin dutela merkaturako prezioekin lehiatu. Erakundeetatik ezarritako traba burokratikoak ere salatu dituzte. Derrigortuta daude egiten duten guztiaren berri ematera, eta horrek ere itota dituela salatu dute askok, ortuko edo kortako lanak laga eta bulegoko lanetan eman behar izaten dituztelako gero eta ordu gehiago. Argudio gehiago ere badituzte, nork bereak, asko direlako eta askotarikoak, eta bakoitzak bere arazo eta beharrak dituelako. Orrialde hauetan batu ditugu Elgoibarren baserritik bizi diren lau nekazariren iritziaik.

Urtarrilaren azkeneko astean hasi zituzten protestak Europako hainbat herrialdeetako nekazariak. Halakoetan ohi denez, arriskutsua ere gerta daiteke protestarako eman dituzten argudioak garrantziaren hurrenkeran zerrendatzea, baina badira bi eskari orokor. Batetik, Europako Batasunaren Nekazaritza Politika Bateratua sinplifikatzea exijitzen dute, gehiegizko burokraziak kostu onartezinak dakarziela arrazoituta, eta bestetik, Europako Batasunaren merkataritza libreko itunak bertan behera lagatzea, onartezintzat jotzen dutelako

hemen bertoko ekoizleek dituzten eskakizunak betetzen ez dituzten beste herrialdeetako produktuak Europan libre sartzea. Protestatzeko, traktoreak atera dituzte errepidera eta mobilizazio handiak egin dituzte; baita Euskal Herrian ere. Ipar Euskal Herriko nekazari eta abeltzainak izan ziren errepidera irteten lehenengoak gurean, eta gero batu zitzaizkien Hego Euskal Herrikoak, otsailaren lehenengo astean. Lehen sektoreak ezin duela gehiago salatu zuten. Otsailaren 9an, esaterako, Bilboko kaleak hartu zituzten traktoreek, EHNE eta ENBA

sindikatuak antolatuta, eta hiru egun geroago, sindikatuarekin adostu barik, Donostiara zuzendu ziren Gipuzkoako lehen sektorekoak, whatsappez antolatuta. Ez zen hor amaitu, baina. Protesta olde betean, joan zen barikuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko atarian bildu ziren eredu agroekologikoa babesten duten nekazari eta abeltzainak. Besteak beste, eredu industrialean oinarritutako nekazaritza polika egitea eta nekazariak itotzea leporatu zioten Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta hondamendi ekologikoari eta kapitalismoaren krisiari aurre egiteko alternatibatzat aurkeztu zuten eredu agroekologikoa. Martxoaren 1erako, berriz, beste mobilizazio orokor bat antolatu dute EHNE eta ENBA sindikatuek.

Hainbat arrazoi dituzte nekazari eta abeltzainek egonezina azaltzeko. Orokorrak dira batzuk, eta lekuan lekukoak beste batzuk, eta horiez gain, bakoitzak bere arrazoi partikularrak ere baditu borrokarako, sektorea askotarikoa delako, baina guztiaren gainetik itota daudela salaten dute gehienek. Erreportaje honetarako elkarrizketatu ditugunetako hiruk ere hartu dute parte Donostiako mobilizazioetan, eta parte hartu ez arren, zilegitzat jo ditu laugarrenak.

Mausitxa baserriko Inaki Ansola eta Basuetako Nerea Garitagoitia otsailaren 12ko protestan izan ziren Donostian. Nagusiki lau arrazoi aipatu zituztela azaldu du Ansolak mobilizatzeko arrazoez galdetzean: errentagarritasun eza sektorean; nekazariari ezartzen zaien burokrazia; dirulaguntzen politika eta haiekiko morrontza; eta Europako Batasunak garapen jasangarrirako finkatutako helburuak, hau da, Agenda 2030 deitutakoa. Baina bosgarren eskari bat ere gehitu du bere gaurko zerrendara: otsoak duen babesa berriro azter dezatela, uste duelako gehiegizkoa dela eta abereak larrera ateratzen dituzten abeltzainei min handia egiten diela. "Nazkatuta gaude bete behar ditugun paper eta pasa beharreko ikuskaritza guztiakin. Gastuek, bestalde, izugarri egin dute gora azkeneko bi urtean eta kostuaren azpitik saltzen ari gara. Dirulaguntzen menpe bizi gara hein batean, eta hori ez dugu nahi. Orain, gainera, Agenda 2030 delako horrekin klima aldaketaren erantzule ere geu egiten gaituzte, hein batean. Eta kontuz, ez nago ni ingurumena babesteko tresnen kontra, baina Gipuzkoan egunero 400 hegaldi pasatzen direnean, gure abereak sortzen duten metanoari begira jartzea ere...". Europako Batasuneko

*"Baserritarrentzako dirulaguntzak
aipatzen dituzte agintariak,
baina hemen sustatu diren dirulaguntzak
ez dira sekula gu bezalako baserritarrei
laguntzekoak izan.
Handirako xaxatu gaituzte beti hemen"*
- Miguel Juaristi -

neurriak "zorrotzegiak" direla uste du Ansolak, inportatzen diren nekazaritza produktuei ez dizkietelako baldintza horiek exijitzen, eta bestetik, uste du bulegoetan hartzen dituzten erabaki asko ez dituztela sektorean pentsatuta hartzen.

Familia-negozioa da Mausitxa eta bost lagunek egiten dute lan bertan. "Askorentzat handiak izango gara gu, baina estatuan dauden ustiatzeekin alderatuta, euli kaka bat gara, eta handiei ezartzen dizkieten baldintza berberak bete behar ditugu. Dena papera betetzea da hemen". Astean egun oso bat ematen du haren emazte Itxaso Irazabalek burokrazia kontuak betetzen. "Tresnak sinplifikatzeko eta burokrazia txikitzeko eskatzen dugu, eta administrazioetik erantzuten digute sortuko dituztela ikastaro gehiago gu bezalako jendea prestatzeko", adierazi du.

Eramanezina zaio Garitagoitiari ere gero eta ugariagoak diren betekizunak betetzea. Bai Iñakik eta bai berak ere etxeko negozioari jarraipena ematea erabaki dute, eta beraz, ez dute hutsetik hasten denak besteko zailtasunik izan hasiera batean, baina errazik ez dago baserritik bizi nahi duenarentzat. "Pandemia garaian pentsuaren prezioa bikoiztu egin zen kolpera Ukrainako gerra eta beste zenbait aitzakia tarteko, eta orain, lastoa ikaragarri garestitu zaigu, baina lanak ditugu gure produktuak prezio duin batean saltzeko. Eta nik, zuzenean saltzen dudanez, tira, baina dendaren bati saldu beharko banio, akabo, kostuen azpitik saldu beharko nukeelako", dio Garitagoitiak. Miguel Juaristi Lizundia Txabolakoak eman ditu zenbakiak. Aipatu du 330 bat kiloko lasto-fardoa hogeitatu bat euro pagatzen zituela oraintsu arte, eta orain, azkena, ehun bat kilo handiagoagatik 80 euro pasa ordaindu dituela. "Bildotsa, berriz, kiloa 750-800 pezetatan saltzen genuen Azpeitiko

azokan orain 40 urte, eta orain, bost bat euroan normalean. Gabonetan zeozertxo garestiako, baina hutsa", gehitu du.

BIZI NAHI ETA EZINA

Gustatzen zaie egiten dutena eta horregatik eusten diote, baina oinarrizkoa den lanbide batetik "bizi nahi eta ezina" da haiena. "Elikagaiak ekoizten ditugu, landa-ingurunea eta mendiak zaintzen ditugu, eta hutsa balio du egiten dugun lanak. Baserriko jeneroa garestia dela ere esango dute batzuek, baina hori ez da egia", dio Garitagoitiak. Ortuariak, arrautzak eta okela ekoizten ditu Garitagoitiak, azokan eta etxez etxe saltzeko. Hemen bertako produktua erosituta, kalitatezko jatekoa ez ezik, ingurua ere babesten dela nabarmendu du, eta horixe esan nahi lieke bezeroei, erakundeek nekazariei laguntzeko neurriak hartzea ezinbestekoa izanda ere, tokiko produktuak kontsumitu ezean jai dagoelako. Baikorra izan nahi du, baina ezin du ezkutatu ilun ikusten duela etorkizuna. Ingurura begirata, edadetu asko ikusten ditu baserrietan eta azoketan, bai saltzen eta baita erosten ere, eta horregatik poztu zuen horrenbeste Donostiako mobilizazioan hainbeste gazte ikusteak. Gauza bera esan du Ansolak ere: "Lehen bestean itzuli nintzen, baina pozik, zaila egon arren atzetik bultzaka datorren jendea badagoela ikusita".

"GEHIEGIZKO BUROKRAZIA"

Burokraziak "higuinduta" ditu nekazari asko. Urtebete ez da Basuetan Internet jarri zutela tramiteak sistema elektronikoa bidez egin ahal izateko, baina ustez lana errazteko behar zuen tresnak ernegarazita ditu. "Exijitu eta exigitu ari zitzaizkigun Internet jartzeko eta hamarretik zortzitan sistema elektronikoa ez dabil. Aurreko batean bildotsak hiltegiara eraman behar, eta hemen ibili nintzen bi egunean bajak eman ezinda Internetez. 08:00etatik 10:00etara eraman behar dira animaliak hiltegiara eta 08:00ak aurretik jaitsi nintzen Nekazaritza Bulegora, etsita, paperak zuzentzera, alferrik delako haiek gabe inora joatea. Jaitsi espresuki bulegora, igo azkar, kamioia kargatu eta hiltegiara, presaka".

Ganadu kontuez ari dela dio "absurdoaren mugak" ere gaintu direla. Dirulaguntzak jaso ahal izateko, ganadua larrez aldatu behar duten bakoitzean apuntatu egin beharra dute zenbat behiburu edo ardiru eraman dituzten larre batetik

"Exijitu eta exigitu ari zitzaizkigun Internet jartzeko eta hamarretik zortzitan sistema elektronikoa ez dabil".

- Nerea Garitagoitia -

bestera. "Zenbat denbora egin duten barruan, noiz atera dituzun eta nora, zer eguraldirekin atera ditugun... dena apuntatu beharra dago hemen", zehaztu du Miguel Juaristi Lizundia Txabolakoak. "Gure modukoarentzat azkena da hau! Gazteak moldatuko dira ordenagailuz-eta, baina gure modukoak zer egin behar du? Eta txarrenean ere, gu zortekoak gara inguruko Nekazaritza Bulegoa Elgoibarren daukagulako!".

DIRULAGUNTZEN POLITIKA

Hilabeteko azken zapatuan Elgoibarren jartzen du postua eta zapaturo Eibarko merkatu plazara eramaten ditu etxeko produktuak Juaristik: ogia, sagarrak, intxaurrak... eta norbaitek eskatuz gero, ortuko jenero apurren bat ere bai. "Baserritarrentzako dirulaguntzak-eta aipatzen dituzte agintariak, baina hemen sustatu diren dirulaguntzak ez dira gu bezalako baserritarrei laguntzekoak izan sekula. Dirulaguntzak eskatzeko beti behar dira dauzkagunak baino abelburu gehiago. Beti dago gutxieneko bat, eta ez da normalean gure baserrietan izaten den kopurua izaten. Beti behar da gehiago, abelburu gehiago, hektarea gehiago... Handirako xaxatu gaituzte beti hemen, eta horrek etsiarazi egin ditu baserritar asko, eta orain ez dago horri buelta ematerik". Bat dator Iñaki Lazarobaster Altzola Berazetakoa ere. Euskal Herriko baserri-eredua beste bat izan dela argi dute biek, jasangarriagoa. "Lau-sei behi, hogeit bat ardi, oilo batzuk eta ortu koskor bat izan dira hemen inguruko etxe guztietan. Eta ez al da hori hobea, etxe bakar batean ehundaka behi batzea baino? Zortzi behiren hondakinak zer denik gabe deuseztatzen dira, baina kopuru handian hondakina ere askoz gehiago sortzen da, eta horrekin zer? Kontraesanean ari dira", bota du Juaristik.

Kritiko da dirulaguntzen sistemarekin Lazarobaster ere. Batetik dio oso sistema konplexua dela: "Nahita egin dute horrelakoa,



Miguel Juaristi Lizundia Txabolakoa, ukuluan, artaldea larrera ateratzeko gertu.

aholkulariren bat kontratatzeko ahalmenik ez duten baserritarrek ulertu ezin dezaten". Bestetik, uste du eredu industrialean onarritutako nekazaritza ereduak sustatzeko sortutako dirulaguntzak direla EAEkoak: "EAJk beti bultzatu izan du aktibitate batean espezializatzea baserritarra, eta hori intentsifikatzea gero, eta beti sortu nahi izan ditu egitura handiagoak, baserritarrek ekoiztutako hori kudea dezaten. Horrek, azkenean, katebegi galdu bat bihurtu du baserritarra". Garbi dute gizartea aldatu dela eta harekin batera ohitura asko ere bai, baina uste dute sustatu den nekazaritza politikak behartu dituela baserritar asko lanbidea lagatzera. "Esne gordina saltzea debekatu zuten, baserritarrei bideragarriak ez zitzaizkien azpiegiturak eginarazi zizkieten etxeetan, eskualdeka-edo esnea tratatzeko azpiegitura bat egin beharrean, eta azkenean, esne ekoizle denek bukatu dute beren esnea Kaikura eramaten", zehaztu du Lazarobasterrek.

Nahi adina luzatzeko beste arrazoi eta ezin zerrendatu ditu Lizundia Txabolako Miguelek, bai eta anekdotak ere, bat bestearen atzetik, eta azpimarra egin du haietako batean, bulegoetako kontuak zenbateraino zaizkion aztoragarri azaltzeko. "Dirulaguntzak eskatzeko baldintza zen abelburu kopuru jakin bat izatea. Bete ezean, zigorra, eta neuri pasatakoa da hau: behi gazte bat hil zitzaidan txahala egin berritan, umetokia bota ostean odolustuta. Nik baneukan hura bigai

batekin ordezkatzea, baina bigaiak gutxienez hamasei hilabete izan behar zituen eta nireak bi egun falta zituen paperak zuzentzera joan nintzen egunean. Goiak hartuta paratu nintzen, bulegokoak muturra okertu zuenean". Kritiko da teknikari askoren lanarekin. "Papereko formatoarekin" bizi direla dio, eta bat dator Nerea Garitagoitia ere. "Tekniko lanetan hasi behar dutenek urtebete baserrian bizi behar lukete aurrena, zer den ikusteko", esan du horren harira. Eta gehiago dio Juaristik: "Orain arte ibili direnak baserri mundua ezagututakoak dira, baina gure ezagun batek dio lau-bost urte barru egongo direnak ez direla ardia, ahuntza, astoa, eta behorra bereizteko gai izango, paperean idatzita eman ezean. Baserritar baino tekniko gehiago dago gaur, eta askok baserriko bizimoduaren arrastorik ere ez dute. Dena papergintza da hemen orain". Lurralde batetik besterako aldeak ere ikaragarriak direla dio. Aipatu du Bizkaian etxean hildako animalia jasotzeagatik baserritarrek ez duela ordaindu beharrik, baina Gipuzkoan bai, eta baserritar txikiak ez diredoak ekarri zuen Tiket Bai sistema ere momentuan Gipuzkoan bakarrik dagoela indarrean. "Nik badakit jasotzera etortzea gastua dela eta guk ez dugula oso-osoan ordaintzen gastu hori, baina zergatik da hemen bai eta han ez?", zehaztu du.

Egoera oparoan egongo diren nekazari batzuk egongo direla aitortu arren, orokorrean nekazari gehieneko egoera eskasa dela nabarmendu du

Iñaki Lazarobasterrek, eta ulergarria irizten dio nekazarien haserreari, baina tentuz erreparatzen die, aldi berean, protesta bakoitzaren atzean dauden aldarrikapen edo interesei, uste duelako nekazarien artean ere eskuineko balioen aldeko joera indartzen ari dela azkeneko urteetan. "Protestak ez dira edozein unetan etorri. Europako hauteskondeen atarian aktibatu dira eta aldarrikapen batzuk norabide onean daude eta beste batzuk ez". Erabaki okerren artean du Frantziako protestak apaltzeko Europak 2030erako pestiziden erabilera %50 murrizteko zuen plana bertan behera utzi izana, adibidez: "Albiste txarra da, Europara kanpotik inportatzen diren elikagaiei hemengoei eskatzen zaizkien baldintza berdinak eskatu beharrean, hemengoei baldintzak jaitea ez delako bidea. Klima aldatzen ari zaigula ziurtatzen duten ebidentzia zientifikoak daude eta ezin dugu industria edo turismo sektoreek edo beste nekazari batzuek guk baino gehiago kutsatzen dutela argudiatu guk ezer ez egiteko".

Nekazaritza akroekologikoa lantzen dute Altzola-Berazetan. Barazkiak, arrautzak eta txahal okela ekoizten dituzte modu ekologikoan eta gehiena Elgoibar eta Mendaron banatzen dute salmenta zuzenaren bidez. "Lurra, landareak eta animaliak hobeto zaintzeko hautua" egina dute, herritarren osasuna zaintzeko. "Zaintza

"Ezin dugu industria edo turismo sektoreek edo beste nekazari batzuek guk baino gehiago kutsatzen dutela argudiatu, guk ezer ez egiteko"

- Iñaki Lazarobaster -

da hitza, zenbat eta gehiago egin orduan eta zeregin gehiago ekartzen dizkiguna". Bere ustez non, nola eta zenbat ekoiztean dago gakoa, ekoizpenari zaintza gehitzea alegia, eta horretarako agroekologian oinarritutako nekazaritza ereduaren alde egin dute. Trantsizio ekologikoa sustatzea ezinbestekoa ikusten du eta horretarako bidea beste batek izan behar duela uste du: "Mekanismo sustatzaileak bultzatzea, inposatutako penalizazioen bidez egin beharrean, pizgarrien aldeko apustua eginda".

Konplexua da arazoa, bistan da, eta ulergarria nekazarien haserre, edonondik begiratuta ere. Baserritarrek beren lana balioan jartzea eskatzen dute, oinarritzkoa den lanbide batetik bizi ahal izatea, eta gaurko zein ondorengo baserritarrentzat eta gainerako herritarrentzat etorkizuna hobea izan dadin nork bere alea jarri behar duela uste du Lazarobasterrek: "Agintari, erakunde, nekazari, herritar... guztion ardura da egoera hau iraultzea".



Iñaki Lazarobaster Altzola-Berazeta baserrikoa. Nekazaritza akroekologikoa lantzen dute.

HAMAIKASAX, SAXOFOI-JOLE GAZTEAK LEHIAN

✍️ Ainhoa Andonegi / 🎷 Ainara Argoitia



Hamaikasax Saxofoi Elkarteak eta Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolak Saxofoi-jole Gazteen III. Hamaikasax Nazioarteko Lehiaketa antolatu dute astebururako. Lehiaketa honen bidez, saxofoi klasikoa zabaldu eta musikari gazteei saxofoiaren munduan jarraitzeko pizgarri bat eskaini nahi diete antolatzaileek, bai eta goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleei bultzada eman ere. Euskal Herriko saxofoi-joleez gainera, Kantabriatik, Madrildik, Tenerifetik eta Galiziatik etorritakoek ere parte hartuko dute, hemeretzik guztira, eta tartean Elgoibarko lau ere arituko dira: Elaia Etxaniz Irureta (A mailan), Laia Martinez Astigarraga

(B mailan), Leire Etxaniz Bereziartua eta Itxaso Garaizabal Mujika (C mailan).

Lehiaketaz gain, bi kontzertu ere antolatu dituzte. Bihar, Musikeneko saxofoi taldekoak entzuteko aukera izango da, 19:00etatik aurrera, musika eskolako auditoriumean, eta domekan beste kontzertu bat antolatu dute, Herriko Antzokian. Elgoibarko Udal Musika Bandak emango du kontzertua eta bandarekin batera bakarlari lanak egingo ditu Pablo Mira Rico saxofoi-joleak, azken edizioko irabazleak. 12:30ean hasiko da kontzertu hori, eta ekitaldi horretan banatuko dituzte lehiaketako sariak.

ELAIA ETXANIZ (15 urte)



"Musika Eskolan instrumentu tailerra egiten dute LH2n, eta ikasturte horretan instrumentu guztiak probatzeko aukera egoten da, norberari gehien zein gustatzen zaion ikusteko.

Tailer horretan guk ez genuen aukerarik izan saxofoia probatzeko, plaza guztiak beteta zeudelako. Baina nik betidanik nahi izan dut saxofoia jo, txarangan ikusten nituelako saxofoi-joleak eta

inbidia ematen zidatelako. Orduan eskatu genuen saxofoia ere probatzea, eta gero nahi genuenok izena eman genuen. Denontzako lekurik ez zegoenez, zozketa egin zuten eta tokatu egin zitzaidan. Oso gustura nago, oso irakasle ona daukagu eta oso ondo pasatzen dugu. Orain, Donostiako kontserbatoriora ere joaten naiz saxofoi klaseetara, eta gustatuko litzaidake Mauxitxa txarangan ere sartzea. Hamaikasax lehiaketan bigarren aldiz hartuko dut parte aurten. Lan handia egin dugu dena prestatzen, baina hala ere, urduri nago".

ITXASO GARAIZABAL (10 urte)



"Orain dela hiru urte hasi nintzen saxofoia jotzen. Ume-umetatik argi neukan saxofoia jo nahi nuela, baina instrumentu tailerrean ez ziguten probatzeko aukerarik eman.

Azkenean probatzeko eskatu genuen, eta bik eman genuen izena, baina batentzako lekua bakarrik zegoen. Besteak azkenean atzera egin zuen, eta ni sartu nintzen saxofoi eskoletan. Urte hauetan gauza

asko ikasi ditut eta oso pozik nabil saxofoia ikasten. Hamaikasax lehiaketan lehenengo aldiz hartuko dut parte, eta nahiko urduri nago. Lan handia egin dut, ordu asko pasatu ditut prestatzen eta espero dut ondo irtetea. Nik *Cansas city* abestia joko dut. Badauka parte bat pixkat zaila dena, baina bestela nahiko erraza da. Aitor Nova da nire irakaslea, eta asko gustatzen zait berak nola jotzen duen. Mauxitxa txarangan jotzea ere gustatuko litzaidake. Txiki Egunean oso ondo pasatzen dutela ematen du, eta ahal badut, sartuko naiz ni ere egunen baten txarangan".

LAIA MARTINEZ (13 urte)



"Guk ere instrumentu tailerrean ez genuen aukerarik izan saxofoia probatzeko, eta azken klasean instrumentu bat errepikatzeko aukera eman ziguten. Guk esan

genuen errepikatu baino nahiago genuela saxofoia probatu, eta utzi ziguten probatzen, baina gero zozketa bidez banatu zituzten plazak. Niri ez zitzaidan tokatu, eta nire bigarren aukera biolina zenez, hura aukeratu nuen. Gero saxofoi

plaza bat libratu zen, eta bi urtez egon nintzen bi instrumentuak ikasten, baina orain biolina laga eta saxofoiarekin bakarrik nabil. Nire hirugarren urtea da saxofoia jotzen. Saxofoiaren soinua gehiago gustatzen zait, eta aukera gehiago eskaintzen ditu, adibidez, txarangan sartzeko. Aurten lehenengo aldiz hartuko dut parte Hamaikasax lehiaketan. Maila handiko jendea etorriko da, eta lan handia egin dugun arren, irabaztea oso zaila izango da. Urduri nago, baina ahal dudan ondoen egingo dut. *Bagira* abestia joko dut lehenengo eta aurrera egiten badut, *Dance du sax*".

LEIRE ETXANIZ (12 urte)



"Guri ere ez ziguten saxoa probatzeko aukerarik eman, eta ez neukan saxofoia aukeratzeko asmorik. Baina nire lehengusinak saxofoia jotzen zuenez, haren bitartez izan nuen probatzeko aukera, eta gustatu egin zitzaidan.

Azkenean hasi nintzen jotzen, eta oso gustura nabil. Instrumentu gehienek bezala, ordu asko

eskatzen ditu, batez ere, hasieran, baina esango nuke zailena ikasi dudala eta hemendik aurrera hobetzen joango naizela. Nik ez daukat egunero jotzeko denborarik, baina hala ere, eskaintzen diot denbora. Hamaikasax txapelketan parte hartzeko pozik nago, eta momentuz, nahiko lasai. Jende aurrean kontzertuak eman izan ditut aurrez ere musika eskolak antolatuta, baina lehiaketa batean parte hartzen dudan lehenengo aldia izango da. Nik ere *Cansas city* abestia joko dut".

AITOR NOVA

Musika eskolako saxofoi irakaslea eta zuzendari pedagogikoa



Zer da Hamaikasax lehiaketa?

Euskal Herriko saxofoi-jole batzuen artean Hamaikasax elkarteak sortu genuen, saxofoi klasikoari bultzada emateko. Jardunaldiak, topaketak, ikastaro bereziak eta bestelakoak antolatzen hasi ginen, eta duela zortzi bat urte lehiaketa antolatzeko ideia bururatu zitzaigun. Elgoibarren egitea proposatu nuen, eta oso pozik geratu ginen emaitzarekin, bai antolakuntza aldetik eta baita parte-hartze aldetik ere. Segida ematea erabaki genuen, eta bi urtetik behin antolatzen dugu. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da.

Zenbat lagunek hartuko dute parte?

Elgoibartik lau ikasle egongo dira, eta horiekin batera, beste hamabost lagunek hartuko dute parte, hiru kategoriatan banatuta. 12ra artekoak batetik, 14ra artekoak gero eta 16 urtera artekoak. Tenerife, Madril, Galizia, Kantabria, Nafarroa, Iparraldea... leku askotako gazteak etorriko dira, eta maila ona erakutsiko dute. Aurreko urteetan ere maila handia izan dugu, eta aurtengoak ere itxura hori dauka.

Orain arteko edizioen balorazioa egingo al duzu?

Pozik gaude. Iruditzen zaigu balio duela gazteak animatzeko, eta saxofoiaren bidean sakontzeko. Lehenengo edizioa irabazlea

Amsterdanen ari da saxofoia ikasten, eta bigarren edizioko Musikenen.

Nolako harrera dauka saxofoiak Elgoibarraren?

Elgoibarren arrakasta handia dauka saxofoiak. Banda eta txaranga edukitzeak asko laguntzen du, eta umeak pozik etortzen dira saxofoia ikastera, eta horrelako ekitaldiekin motibazio extra bat eskaintzen diegu. Urte batzuetan gainezka egon ginen, eta plaza guztiak beteta izan genituen. Ni bakarrik nengoen saxofoi irakasle moduan, eta zuzendari pedagogiko izendatu nindutenean, jardunaren erdia zuzendari lanei eskaintzen hasi nintzen. Ondorioz, ezin nuen ikasle berririk hartu saxofoi eskoletan, eta urte batzuetan ez genuen eskaintzen saxofoia probatzea instrumentu tailerretan. Ez genuen nahi umei probatzeko aukera eman, eta gero esatea ezin zutela saxofoia ikasi. Hala ere, benetako interesa zutenei eman zitzaizen aukera, eta bajak eduki ahala sartzen genituen ikasle berriak. Gaur egun beste irakasle bat dago, eta horri esker eskaera guztiari erantzuteko moduan gaude.

"Aurreko urteetan ere maila handia izan genuen eta aurtengoak ere itxura hori du"

|| 'Matx': kirolarien, kirolzaleen eta klubaren aplikazioa



Hainbat hilabetez sareetan edukiak partekatzen ibili ostean, eguazten arratsaldean aurkeztu zuten Donostian, Matx kirol-proiektua. Kirolariak, kirolzaleak eta klubak batzen dituen aplikazioa da, eta helburu nagusia da hiruren arteko harremanak erraztu eta gertuko kirol komunitate berri bat sortzea. Eta horren erakusle izan zen Tabakaleran egindako agerraldi publikoa; izan ere, kiroleko eragile ugari elkartu zituen deialdiak. Proiektuko arduradunetz gain, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariak, Laboral Kutxako ordezkariak eta, besteak beste, lurraldeko federazio, klub eta kirolari ugari batu ziren han, tartean Elgoibarkoak.

Hiru ardatz nagusi

Guztiaren erdigunean aplikazio bat badago ere, Matx "hori baino askoz gehiago" izango dela azaldu zuten arduradunek. Proiektua hiru zutabe nagusitan banatuko da: klubak, kirol-edukiak eta komunitatea.

Joane Korta, TOKIKOMeko proiektu-kudeatzailea, kirol-klubaren garrantziaz mintzatu zen: "Gertuko

klubak oso garrantzitsuak dira guretzat, aplikazioa sortu eta berau garatzeko fasean ezinbestekoak izan baitira". Besteak beste, digitalizazioan eta komunikazioan lagunduko die Matx-ek klubei, taldeetako datu baseak osatu, antolatu eta elkarren artean mezuak modu seguruan trukatzeko aukera eskainiko baitie. Era berean, kirol-datutegi indartsua ere izango da Matx. "Bakoitzaren interesen arabera emaitzak, partiden datak eta sailkapenak emango ditu une oro".

Kirol-edukiak ere oso garrantzitsuak izango dira Matx-en. Gertuko kirolean gertatzen denaren berri emango du, ikuspegi fresko eta berritzailearekin. Eduki guztiak formatu bertikalean eta mugikorren kontsumitzeko modukoak izango dira, eta albisteak, elkarrizketak, desafioak eta kirol-agenda kontsultatzeko aukera eskainiko die erabiltzaileei.

Alde horretatik, hasieratik ikus-entzunezkoen aldeko apustu garbia egin dutela esan du Aratz Losadak, proiektuko eduki arduradunak: "Gazteak izango dira gure xede-talde nagusia. Merkatua eta kontsumo-ohiturak ondo aztertu ostean, garbi izan dugu eduki bertikal eta


dinamikoen aldeko apustua egin behar genuela". Horiek sortzeko, erredakzio propio bat osatu dute TOKIKOMeko Gipuzkoako hedabideekin. "Talde-lanean ari gara eduki propioak sortzen, eta, era berean, hedabide bakoitzeko kirol-edukiak ere jasoko ditugu Matx-en", azaldu du Losadak.

Proiektuko marketin eta komunikazio arduraduna den Maria Balzategik azaldu zituen aurkezpenean Matx-en komunitatearen inguruko xehetasunak, bereziki, interakzioaz eta sare sozialen amuaz jardun zuen. "Kirol-komunitate bat sortu nahi dugu. Kirolariak, klubak eta kirolzaleak, guztiek izango dute lekua aplikazioan. Euren artean komunikatu, argazkiak edo bideoak partekatu, albisteak sortu eta antzerakoak egin ahal izango dituzte. Azken finean, interes antzekoak dituztenen arteko interakzioa bilatu nahi dugu", azaldu zuen.

Aplikazioa izango da proiektuaren erdigune eta bertan ikusi ahal izango dira eduki guztiak, baina sare sozialen erabilera ere estrategikoa izango da, Balzategiren berbetan: "Gure erdigunea aplikazioa da eta estrategia guztia bertara bideratuko dugu, baina jakitun gara sareek ere garrantzi handia dutela gaur egun; hori horrela, sareak amu moduan erabiliko ditugu".

Hedatzeko asmoa

Aurrez esan bezala, TOKIKOMeko Gipuzkoako bazkideen babesarekin abiatu da proiektua, eta



BARREN ere bada MATXeko erredakzio-taldeko kidea, baina hura landu eta egonkortzearekin batera, gainontzeko bazkide eta lurraldeetara hedatzeko asmoa daukatela esan dute.

Sorburuan tokiko hedabideak egonik ere, Matx-en atzean kirolariak eta kirolzaleak ere badaudela zehaztu dute. Hiru urte hauetan aplikazioa garatzen lagundu duten klubak "oso garrantzitsuak" izan dira. Eurekin batera landu dute proiektua, eta aurrerantzean ere hori da asmoa. "Eskutik joango gara zero kilometroko hedabideak eta tokian tokiko klubak".

Doako aplikazioa

Matx doako aplikazioa da. IOS eta Android plataformetan bilatu, deskargatu eta erregistratu besterik ez da egin behar erabiltzen hasteko.



Otsailaren 29ra arte eman daiteke izena Atxutxiamaikaren udaberriko oporraldian



Elgoibarko Izarrako Atxutxiamai aisialdi taldeak prest dauka udaberriko oporraldirako programazioa, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. HH2tik LH6ra artekoentzako eskaintza prestatu dute, martxoaren 25etik 27rako eta apirilaren 2tik 5erako. Beti bezala, txokoak eskainiko dituzte etxeko txikientzat, eta gainerakoentzako irteerak, egonaldiak eta bestelako jarduerak ere prestatu dituzte.

Eskaintza zehatza eta prezioak kontsultatzeko elgoibarkoizarra.eus webgunean sartu behar da, Atxutxiamai atalean. Izena emateko azken eguna otsailaren 29a izango da.

Aingeru Guardako jaiak ospatuko dituzte Mendaron

Martxoaren 1ean Aingeru Guardakoaren eguna dela-eta, meza izango da Mendaron, Aingeru Guardako ermitan. Auzoko jaiak, bestalde, martxoaren 3an ospatuko dituzte, eta egun horretarako egitaraua prest dute antolatzaileek: 12:00etan trikitalari eta bertsolarien emanaldia egongo da. Aimar Sorazu eta Aitor Urbieta arituko

dira bertsotan eta Maite Olazabal eta Igor Rey soinu eta panderoarekin. Ondoren, herri kirolen erakustaldia egingo dute. Julen Cañameres eta Aratz Mugertza jardungo dira aurrez aurre, aizkoran eta korrika. Cañamaresek ondoren figura batzuk egingo ditu motozerrarekin. Antolatzaileek txosna jarriko dute.

Amoranteren 'Habanera' bideoklipa Bideo Onena izateko hautagaien artean dago Gaztea Sariak musika lehiaketan

Euskadi Gaztea irratiko 2024ko Gaztea Sarietako izendatuen artean, Iban Urizar Amoranteren *Habanera* aukeratu dute bideoklip onenaren kategoriarako. Amorantek *Harri, Herri, Har* diskoan kaleratu zuen *Habanera* kanta, eta Lekeitioko San Pedro eguneko ikonografia da Arrigurik egindako bideokliparen ardatza. Bost hautagai daude sail honetan, eta hauek dira Amoranteren lehiakideak: Izaro (*Cerodenero*), Merina Gris eta Delaporte (*Almar*), Bulego (*Zure begi horiek*) eta Sara Zozaya (*Caravan*). Botoa emateko: eitb.eus/eu/gaztea/gazteasariak.



Aurten, bi egunetan banatuko dituzte Gaztea Sariak. 2023ko artista eta bakarlari onenak saritzeaz gain, otsailaren 28an Gorka Urbizuren zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da Bilboko Euskaldunan. Bigarren egunean

(otsailak 29), Gazteako ikus-entzuleen botoak zenbatuta, iazko artista edo bakarlari onena, abesti onena, disko onena, bideoklip onena eta zuzenekorik onena sarituko dituzte, eta kontzertua emango du ETS taldeak.

Hitzarmena berri du EHUk eta IMHko Ingeniaritza Dualaren Eskolak

IMHko Ingeniaritza Dualaren Eskolak eta Euskal Herriko Unibertsitateak 12 urtetik gora daramatzate lankidetzan, eta elkarrekin duten atxikipen-hitzarmena berri du. Euskal Herriko Unibertsitateko Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreorde Laura Vozmedianok eta Ixaka Egurbide IMHko Ingeniaritza Dualaren Eskolako zuzendariak sinatu zuten dokumentua, eta nabarmendu zuten berrikuntza horrek Debarreneko eskualdeko unibertsitate-eskaintza indartzen duela. Bi erakundeek hezkuntza-kalitatearekiko, ikerketa aplikatuarekiko eta garapen teknologikoarekiko konpromisoa partekatzen dute, eta uste dute



hitzarmen hau aurrerapausoa dela, ikasleentzat aukerak sortzeko eta mundu akademiko eta industrialen artean lotura sendoak ezartzeko.

Lantalde berria dauka Makina Erremintaren Museoa



Iker Garcia eta Rafa Zulaika dira Erreminta Makinaren Museoko arduradun berriak eta zeregin berriari gogo handiz ekin diotela adierazi dute. Makina-erremintaren bitartez hemen bertoko tradizio industrialaren erakusleho eta hausnartzeko topagune izateko helburuarekin sortu zuten museoa eta asmo horretan eragitea izango da arduradun berrien zeregin nagusia.

Rafa Zulaika donostiarrak 30 urteko ibilaldi luzea egina du museoan esparruan: Bilboko Arte Ederretakoan, Euskal Itsas Museoan, San Telmon bai eta Baionako Euskal Museoan ere. Horietan guztietan, zuzendaritzatik ala teknikari gisa, museoan eta gizartearen arteko harremani lehentasuna eman diela jakitera eman dute

museotik. Zulaikak Iker Garcia izango du lagun zuzendaritzan. Oraindik gazte izanagatik hamabost urteko esperientzia pilatu du eibartar honek makina-erremintaren munduan, ondo ezagutzen duen sektorean.

Lantalde berria hasia da 2024rako egitaraua prestatzeko lanean eta ekimen nagusienak aurreratu dituzte. Hasteko, Nestor Basterretxea eta Eduardo Chillidaren mendeurrenek izango dute oihartzuna Elgoibarren, museoa bidaide izango baita bi artistok gogoratzeko ekimenetan. Era berean, museoak bat egingo du urtean zehar izango diren ondarearen inguruko ekitaldi garrantzitsuekin, hala nola: Museoen Nazioarteko Egunarekin, maiatzean; Ondarearen Europako Jardunaldiekin, urrian.

Euskararen egungo egoeraz jardungo da Iñaki Iurrebaso soziologoa eguaztenean

Iñaki Iurrebaso (Legazpi, 1967) soziologoak euskararen egungo egoerari buruzko hitzaldia emango du hilaren 28an, Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta. Asko ala gutxi erabiltzen ote da euskara dagoen ezagutzarako? Aurrera goaz ala atzera goaz euskararen indarberritze-prozesuan? Zer perspektiba izan ditzakegu aurrera begira? Zein paper joka dezakete Elgoibar bezalako herriek euskararen indarberritze-prozesuan?... Galdera horiei eta antzerako beste batzuei erantzuten saiatuko da Iñaki Iurrebaso hitzaldi honetan, gaiari buruz dauden datuak aztertuta. Iurrebaso soziologoa



da ikasketaz eta lanbidez, eta UEMAn egiten du lan ikerketa-teknikari moduan. Duela urtebete doktore tesia aurkeztu zuen, eta lan horretan, euskararen egoera zein den ulertzeko ikuspegi eta klabe berri batzuk plazaratu zituen. Horri buruz jardungo da hitzaldian. 18:30ean izango da, Aita Agirre kulturunean.

Irailerako programatu dute bertan behera geratu zen 'Todas las hijas' antzezlan



Irailaren 27rako programatu du Kultura Sailak *Todas las hijas* antzezlan, urtarrilean bertan behera utzi zutena. Kultura Saitetik jakinarazi dute urtarrileko saiorko sarrerek balio dutela irailako emanaldirako ere. Dena dela, nahi dutenek dirua berreskuratzeko aukera ere izango dute. Horretarako Herriko Antzokiko txarteldegira joan behar da zapatuetan, 18:15etik 20:45era Bestela, uztailearen 5etik aurrera jarriko dituzte sarrerak salgai herrikoantzokia.eus webgunean. *Todas las hijas* bost emakume aktoreen historia da. Bost emakumek hitz egiten dute hitz egiteko beharra dutelako, iritsi diren lekuraino nola iritsi diren kontatzeko, beren bizitzak eta artea nola bizi izan dituzten adierazteko.

'Azken erromantikoak' filma grabatzen aritu dira Elgoibarren



Zinema plato bilakatuta ikusi dugu aste honetan Bernardo Ezenarro enpresa. David Perez Sañudo zuzendariaren *Los últimos románticos* filma grabatzen aritu dira bertan, Txani Rodriguezen izen bereko eleberrian oinarritutako filma. Eleberriak egin bezala, komunitatearen zentzua eta klase kontzientzia zeharo galdu diren garai bat du oinarri filmak. Testuinguru horretan, Irune protagonistaren mundu intimoa eta barne gatazkak aztertuko ditu Miren Gaztañaga aktoreak emango dio bizia Irunei. Grabaketaren eraginez kale mozketak egingo dituzte gaur Santa Klara eta Kalegoen plaza inguruan.



VI. URTEURRENA

Mikel Gorostiza Etxaniz

2018ko otsailaren 22an hil zen, 94 urte zituela.

Beti gure bihotzetan. Maite zaitugu.

Etxekoak



Antonio Etxabe Juaristi

2024ko otsailaren 12an hil zen, 83 urte zituela.

***Nahiz eta urrun joan,
gure artean izango zara beti.***

Elkarteko bazkideak




I. URTEURRENA

Luis Mari Arregi Etxaniz

"Maiorta"

2023ko otsailaren 15ean hil zen, 84 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
domekan, otsailaren 25ean, 11:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.

Gure bihotzetan, etxekoak.



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Mayi Mujikak bigarren egin du Antzuolako 8 Miliak lasterketan

Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketaren 11. ekitaldia jokatu zuten zapatuan 300 parte-hartzaile inguruk. Mayi Mujikak ezin izan zuen iaz lortutako garaipena errepikatu emakumezkoetan, baina txapeldunorde izan zen. Iñigo Alzola arrasatearra eta Garazi Abasolo aretxabaletarra izan ziren azkarrenak Antzuolako plazatik abiatu eta Irimora arteko joan-etorria egiten. Alzolak ordubete, lau minutu eta 29 segundo behar izan zituen 14,2 kilometroko ibilbidea osatzeko. Abasolak ordubete, 18 minutu eta 32 segundotan osatu zuen proba, eta errekorretik 23 segundora gelditu zen. Iazko irabazle Mayi Mujika sailkatu zen bigarren postuan emakumezkoetan, irabazlearengandik minutu bat eta 29 segundora, 1:20:01ko denborarekin. Mendi lasterketen denboraldiko lehen proba izan da Mujikarentzat honakoa, eta daukan



sasoia neurtzeko probaldi aproposa izan da bere berbetan. Sufritzeko prestatuta joan zen, bere ezaugarri eta gusturako proba motzegia baita Antzuola inguruetan jokatzeko dutena. Halere, iaz proba irabazi zuenean baino sentrazio hobekak eduki zituela aitortu zuen probaren amaieran, iaz baino lasaiago hasi eta atzetik aurrerako lasterketa egin duelako aurretik.

Mutrikutik Ondarroara irteera egin dute mendizale gazteek



Aurreko urtean ez bezala, eguraldiarekin zorte handia edukitzen ari dira aurtengoan umeentzako antolatzen dituzten mendi irteeretan. Eguraldi eguzkitsua lagun, Gipuzkoa eta Bizkaia batzen dituen itsasertzean barrena ibili ziren, domekan, Morkaikok eta herriko ikastetxeetako gurasoek elkarlanean antolatzen duten mendi irteeran parte hartu zuten lagunak: 30 haur eta beste horrenbeste heldu. Mutrikuko plazatik abiatu

zuten ibilaldia eta Galdonamendiraino igo ziren, itsasbazterreko bidetik. "Bide lasai bezain ederra" izan zela azaldu dute. Galdonamendiko kanpinean indarrak berreskuratu eta gero, Saturrarango hondartzarainoko bidea egin zuten, itsas ertzeko pasealekutik berriro Ondarroaraino joateko. Bazkalordurako itzuli ziren Elgoibarrera. Hurrengo mendi irteera martxoaren 10ean egingo dute, Elgoibar eta Azitain artean.

Gipuzkoako txirrindulariak bat eginda Belodromoan



Harrobirik gabe ez dagoela txirrindularitzarik irudikatzen ekitaldia egin zuten zapatuan Donostiako Antonio Elorza Belodromoan. Festa eta aldarrikapena uztartu nahi izan zituztela azaldu zuen Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioko presidente Santi Osorok. "Gipuzkoako txirrindularitzaren familia osatzen dugun lagunak Belodromoan batuta, dugun indarra ikusaraztea nahi genuen. Gizartean lekua behar dugula aldarrikatu, errespetatu gaitzela". Pistako denboraldia amaitzearekin bat hasiko da errepideko denboraldia, asteburu honetan; eta Gipuzkoako taldeak aurkezteko ere baliatu zuten belodromoko ekitaldia. Gipuzkoako 24 txirrindularitza taldeak aurkeztu zituzten, banan-banan, taldekide guztien izenak aipatuz. Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari Eskolak 2023-2024 denboraldirako osatu duen taldea ere han izan zen. Harrobiko txirrindularitza jasaten ari den zailtasun eta traben aurrean "indartsu, errotuta eta arazoei elkarrekin

aurre egiteko prest" daudela irudikatzen duen familia argakia atera zuten guztiek. Txirrindulari gazteez gainera, txirrindularitzaren bueltako hainbat eragilek hartu zuten parte ekitaldian: zikloturistek, lasterketetako epaileek, lotura motorretako gidariek, lasterketetako antolatzaileek, e.a.

Zumaian hasiko dute Hego Euskal Herriko txirrindularien errepide gaineko denboraldia zapatuan. Hastear den denboraldiak, gainera, izango du berrikuntzarik; izan ere, orain arte 23 eta 27 urtez azpiko txirrindulariek parte hartu zezaketen afizionatuen lehian, baina aurten Euskadiko Txirrindularien Federazioak 27 urtetik 29 urtera arte zabaldu du eliteei dagokien mailan lehiatzeko tartea. Afizionatuen mailako lasterketekin batera, junior eta kadete mailako probak ere jokatu dituzte asteburuan. Jubenil eta kadete mutilek Eibarren hasiko dute errepide gaineko denboraldia, domekan. Kadete eta jubenil neskek Errenterian lehiatuko dira, domeka arratsaldean.

Sanloko sei jokalarik jaso dute Euskadiko selekzioaren deia

2025eko CESA, Espainiako Selektzio Autonomikoen Txapelketa prestatzen ari dira Euskadiko eskubalo selekzioko behe-mailetakoko taldeak eta teknifikazio saioak egin zituzten joan den asteburuan: infantil kategoriako selekzioek Getarian, kadeteek Ermuan eta

jubenilek Donostian. Horetan, Sanloko sei jokalarik hartu zuten parte: Ane Agirrek, Maria Amarak eta Haizea Luluagak infantil nesken Euskal selekzioarekin, Lander Andresek kadete mutilen taldearekin eta Malen Merinok eta Uxue Altzerrek jubenil neskenarekin.

LANA

Eskaerak

Edozein lan egiteko prest nago.
612 202 116

Edozein lan egiteko prest nago.
Baita asteburuetan ere.
611 215 176

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.
Esperientzia. 661 181 824

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Esperientzi handia eta titulua.
Karrozeria lanak ere egiten ditut. 613 509 765

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Esperientzi handia. Etxeko langile moduan edo orduka.
Gauzez ere bai. Titulua daukat. 632 229 972

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Esperientzi handia. Etxeko langile moduan edo orduka.
Gauzez ere bai. 644 655 354

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago. 620 757 528

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Esperientzi handia. Etxeko langile moduan edo orduka.
Gauzez ere bai.
644 943 297

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzi handia. Orduka.
Gauzez ere bai.
679 912 841

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzi handia daukat. 632 420 940

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzi handia daukat. 642 577 823

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. 637 222 318

Orduka edo etxeko langile moduan egingo nuke lan. Titulu soziosanitarioa eta esperientzi handia ditut.
631 020 169

Adinekoak zaintzeko edo garbiketara egiteko prest nago. Esperientzi handia daukat, eta titulua. Gauzez eta arratsaldez aritzeko prest. 660 919 423

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. 631 489 128

Eskaintza

Adineko bat zaintzeko pertsona behar dugu. Etxeko langile moduan. Titulua beharrezkoa. 687 114 707

GARAJEAK

Garaje bat edo lokal bat hartuko genuke alokairuan Mendaron edo inguru gertuan. 616 766 673


PARTIKULARRAK

Batxilergoko bigarren maila egiten ari den ikasle bati latin eskolak emateko pertsona behar dugu. 664 219 341

ETXEBIZITZAK

Gazte elgoibartarrak etxea hartuko luke alokairuan epe luzerako. 619 966 696

 <p>administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos Euzkoako Enpleu Administrazioaren Erakunde Komunitarioa</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean, derrama berezi baten bidez ordaindu dugun obra bat egin ondoren, komunitateak diru-laguntza jaso du. Prozesu horrek iraun duen artean, jabe batek etxebizitza saldu du. Une honetan, etxe-jabe ohia zegokion diru-laguntzaren zatia eskatzen ari da. Jakin nahi nuke zenbateko hori itzuli behar dugun, eta, hala bada, nori itzuli behar diogun.</p> <p>Komunitateak diru-laguntzaren xedea onar dezake, esaterako, obra edo funtsen baterako erabiltzea, eta kasu horretan ez du jabeei itzuli beharrik izango. Diru-laguntza banatzea erabakitzen badu, jabe berriak jaso behar du, ez ordainketa egin zuen zaharrak; izan ere, Jabetza Horizontalaren Legearen arabidea aplikatzearen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak une bakoitzean titularrak denari dagozkie. Jabetza eskualdatzen den uanean, jabetza batean sortzen diren eskubide eta betebeharrak titular berriaren kargu edo onurarako dira.</p> <p>Ondorioa. Legedi bakar batean ere ez da jasotzen etxetxabeen batzarrak banakako likidazioak edo diru-itzulketak egiteko betebeharra duenik. Urtean behin bildu eta urteko kontuak eta aurrekontuak onartzeko betebeharra du, une horretan egin daitezkeelako urteko likidazioak eta, baita, saldo positiboa bada pisu edo lokalaren titularrari itzultzea.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Hodei!**
Gaur 9 urte!
Ondo pasa eta
muxu handi bat
etxekoan partez.



Zorionak,
Irati! Gure
txikiak bihar 6
urte! Primeran
ospatuko dugu!
Segi beti bezain
alai. Etxekoan,
eta bereziki
Eireren partez.



Zorionak, **Manex!**
Dagoeneko 4
urte! Primeran
ospatu zure
eguna,
txapeldun! Muxu
handi bat etxeko
guztion partez.



Zorionak, **Duna,**
astelehenean
17 urte egingo
dituzulako.
Aittitta Jose
eta amama
Mari Carmenen
partez. Ondo
pasa! Muxu bat!



Zorionak, **Ipar,**
domekan 4
urte egingo
dituzulako.
Patxo potolo bat
etxekoan partez.



Bi gazte hauek 50 urte bete dituzte!
Zorionak, **Kristian** eta **Jon!** Ipini
txanpaina freskatzen, merezi duen
bezala ospatzeko zain gaude-eta!



Zorionak, **Laia,**
zure hirugarren
urtebetetzeari.
Muxu handi bat
etxekoan eta
lagunen partez.
Bizi alai-alai
gure sagutxo!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**OSASUN GIDAN
PUBLIZITATEA JARRI NAHI DUZU?**

Gidan agertzearen onurak!

22€
hilean

22€ren truke, hilero,
zure osasun zentroaren irudia
erakutsiko dugu **BARREN** astekarian.

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da
Elgoibar eta Mendaron
erakusleihu ikusiena.

4.885
ale astero

4.885 ale banatzen ditugu
Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta
lagundu gure proiektua finantzatzen.

 **943 744 112**
 **688 769 657**

 **barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**
Alta Agirre Kulturunea, 3. /3. ezk
20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

AEG L6FBI947P ARROPA GARBIGAILUA



599 €



- 9 kg
- 1400 b/min
- Inverter sistema eragilea
- Prosense Teknologia
- Lurrun-programa
- Hasiera gerorotua

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - **bire@milar.es**
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

23 BARIKUA

17:00 / 19:00 Antzerkia: 'Goazen!'. EITBko telesaileko aktoreek kontzertua emango dute. Herriko Antzokian.

20:00 Elkarretaratzea: Elgoibarko Sarek hileko azken barikuko elkarretaratzea egingo du, euskal presoen eskubideen alde. Kalegoen plazan.

22:00 Kontzertua: Elle Belga eta Modesto Newhouse taldeak. Mendaroko San Agustin kulturgunean. Gararock taldeak antolatuta, Udalaren eta Ekintzak Bonberenearen laguntzarekin. Sarrerak: 5 euro (kulturguneko atarian).

24 ZAPATUA

Azken zapatuko feria

09:00 Baserrietako eta Artalde taldekoen produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 C.D. Elgoibarkoek txosna zabalduko dute.

12:00 Umeentzako tailerrak, Atxutxiamaikarekin.

12:00 Ganadu erakusketa.

16:00 Mus Txapelketa. Euskal Herriko Elgoibarko kanporaketa. Tantakan.

11:15 Hamaikasax saxofoi lehiaketa. Musika Eskolako auditoriumean.

19:00 Kontzertua: Musikeneko saxofoi taldea. Hamaikasax lehiaketaren barruan. Musika Eskolako auditoriumean.

25 DOMEKA

19:00 Kontzertua: Udal Musika Banda. Azken Hamaikasax lehiaketako Pablo Mira Rico irabazleak ere hartuko du parte bakarlari modura.

Egitaraua:

1. *Teatro Montecarlo* (.A. Perelló).
2. *Rhapsody for alto saxophone*. (A. Waignein). [Bakarlaria Pablo Mira Rico]
3. *Alatriste*. (Roque Baños).
4. *Mambo furioso*. (B. Karrick).

26 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: 'Maitasuna herriaren opioa?'. Loredi Salegik gidatuko du. Lilan.

27 MARTITZENA

18:00 Literatur tailerra: Quevedoren 'Historia de la vida buscón' liburua landuko dute, Consuelo Carrererekin. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

28 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: 'Haur eta nerabeen emozioen bidelagun; nola zaindu seme-alaben emozioak'. Treba Gurasoak egitasmoaren barruan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Donna Apellanizek emango du, gaztelaniaz.

18:30 Hitzaldia: 'Euskararen egoera gaur, ikerketa demolinguistikoen argitan'. Iñaki Iurrebasok emango du, Aita Agirreko areto nagusian.

19:00 Epeletan literatura tailerra. Jasone Osororen 'Arrakasta' liburua landuko dute, Maite Lopez Las Herasekin. Gotzon Garate Udal liburutegian.

Gustoko

MARTXOAK 1-3

**KALITATEA
ETA JATORRIA**

EROSI ZURE SARRERAK ONLINE
www.gustoko.eu

HOLABORATZAILER NAHUSIAK

Bilbao
BIZKAIA

Bizkaia
TUTU AIZOLARTE
BIZKAIA

hazi
HABITZ

EROSKUNTZA
BIZKAIA

ANTOLATZARLEA
BILBAO EXHIBITION CENTRE
BEEIC!
EXPOSIBLE!

Zinea
Herriko Antzokian



'La memoria infinita'
 24, zapatua: 19:00 / 22:15
 25, domeka: 19:00
 26, astelehena: 21:00



'La zona de interés'
 (Ongarri zinekluba)
 21, eguaztena: 21:00 (VOS)



'El arca de Noe'
 25, domeka: 16:30

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OTSAILA

23 BARIKUA

Arriola

24 ZAPATUA

■ Fernandez
 ■ Garitaonandia

25 DOMEKA

■ Fernandez

26 ASTELEHENA

Yudego

27 MARTITZENA

■ Oruesagasti

28 EGUAZTENA

Barrenetxea

29 EGUENA

■ Ibañez

MARTXOA

1 BARIKUA

Garitaonandia

2024 urte guztian, gaez:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
 943 204 230

■ Fernandez:
 Herriko
 Enparantza,4
 Garagartza
 (Mendaro)
 943 756 142

■ Ibañez:
 Rekalde, 1
 (Soraluze)
 943 751 638

■ Oruesagasti:
 Kalebarren, 9
 (Soraluze)
 943 751 384



Probatu **TEMPUR PRO** lastaira
 eta gozatu atsedeen indartzaile
 eta lasaigarriago batez.

Etorri, bisita gaitzazu!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Belaunez belaun

Anjel Ugarteburu



Hiztegiak erakusten digu, kasu askotan, herri eta gizartearen nondik norakoa. Hitzak eurak bihurtzen dira horrela bide erakusle eta maisu.

Belauna da horietako bat. Latinez *genus* eta handik *generación* eta *generation*. Belaunei esker belaunikatzen eta zutitzen gara. Haien loturari esker makurtu izan da gizakia, nagusia edo Jainkoren bat gurtzeko; baita zutitu ere borrokatzeko, lanean jarraitzeko, injustiziei aurre egiteko.

Belaunaldi hitzak giza bizitzaren iraupena adierazten du. Amaren altzoan edo belaunen gainean edoski dugu titia eta gurasoen belaunetan jaso ditugu lehen fereka eta musuak; han entzun genuen sarritan gure izena. Baita ipuinak eta lo-kantuak ere. Halaxe, belaunez belaun, elikatu eta hazi gara gorputzez zein hizkuntzaz, maitasunezko harreman hurbil eta goxoan.

Jean Barbier, Garaziko euskal olerkari eta idazleak *Supazter xokoan* liburuxkan bildu zituen hainbat ipuin eta abesti XIX. mendean. Hain zuzen ere, beheko suaren ondoko aulkian, epel-epeletan, guraso zein aitita-amamek seme-alaba zein bilobei konta eta kanta ohi zituztenak. Horra, maitasunezko harremanetan, hitz eta melodien giro epelean gauzatzen zen lehen eskola. Ama-hizkuntzan.

Belaunaldi berriek ere amaren titia, guraso eta aiton-amonen hurbileko harremana beharko dute hizkuntza zein sentimenduak garatuz bizitzarako prest egoteko.

Mundua txiki bihurtu da, ordea, eta eskolara sartzen direnen artean zenbat ama-hizkuntza, zenbat melodia ezberdin! Ez da erraza ume-umetatik jasotako ezberdintasun horiek bideratu eta kudeatzea. Dena den, hor izango dute denek

belaunetan jasotako elikadura fisiko zein sentimentala, hizkuntza guztietan antzerakoa maitasunezko harremanean.

Lizardik, Zarauzko olerkari handiak, *Amonaren heriotzean* izeneko olerkiko ahapaldi honetan idatzita utzi zuena harira dator.

*Amonaren aulkia, hago sutondoan
haren ipuinik jaso al dek gogoan?*

*Hik ez? Laratzak? Ezta! Ezuste gozoan
geunden ta gure poza betiko da joan.*

Eta hala jarraitzen du: *Geroztik ari nauzu
hauts zaharrak astintzen, aiton-amon guztien
ipuinak jasotzen eta magalean biltzen...*

Internet bidez trumilka iristen diren eduki kontrolagaitzek ezingo dute inoiz ordezkatu belaunez belaun iritsi den elikadura hori. Belaunaldi hitzak ez du inoiz bere zentzu sakona galduko.



G R E M I O N E N G I D A



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzano, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendaro
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

23,10€ hiean

12 aldiz urtean

4,885 de ostero

22 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarlan.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusia.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada eskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

baren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agire Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

Zergatik eta zertarako euskaldun?

Euskararen egoera **GAUR**

Zer diote **DATUEK?**

- ♦ Asko ala gutxi erabiltzen ote da euskara dagoen ezagutzarako?
- ♦ Aurrera goaz ala atzera goaz euskararen indarberitze-prozesuan?
- ♦ Zein paper joka dezakete Elgoibar bezalako herriek euskararen indarberitze-prozesuan?

Hizlaria:

Iñaki Iurrebaso

Soziologoa eta UEMako ikerketa-teknikaria.



OTSAILAK

28, asteazkena

18:30

Aita Agirre Kulturgunean

Antolatzaileak:

